




# ELORRIKO MONASTEGIAK

## ETA KOMENTUAK

---

TESTUA: **IGOR BASTERRETXEA KEREXETA**  
ARGAZKIAK: **TXELU ANGOITIA**

---





Margoak San Agustineko elizan

## Memaiaiko “Monasterium”a

Argiñetan bildutako hilobi ospetsuez gain, Elorrioko beste auzune batzuetan ere aurkitu dituzte hilobiak, nahiz eta egikeraz eta data aldetik desberdinak izan. Aurkikuntza horiek Gazetan, Miñotan, Mendrakan eta Berriozabaletan izan dira. Dena dela, jakin-minik handiena Memaiaikoek sortzen dute beharbada. Toki hori 1053an aipatu zuten, San Agustin Etxebarriko elizaren dohaintza eta sorrera eskrituran (“...*monasterium quod dicitur Memaia...*”)<sup>1</sup>. Horren arabera, Memaian tenplu txikiren bat egon zela pentsa daiteke, San Agustin bera baino zaharragoa gainera. Agustin Azkarate arkeologo elorriarrak inguru horretan arkeologia-indusketak egin ondoren, bi aztarnategi bereiztu zituen. Bati *Memaia I* izena ipini zion. Desagertutako Santa Kruz ermita han egon omen zen kokatuta. Besteari *Memaia II* deitu zion. Bigarren aztarnategi horretan Santa Marina ermita egon omen zen. Bi

<sup>1</sup> Bizkaiko Foru Artxiboa. (Bilbo; B.F.A aurrerantzean). Elorrioko Udal Artxiboa. 340/4219.



Memaiaiko baselizaren aztarnak

tenpluak IX. edo X. mendetakoak dira adituen ustez. Horrek esan nahi du Bizkaian Goi Erdi Aroko tenplurik eta nekropolik zaharrenak izango liratekeela. Azkaratek honako susmo hau izan zuen Memaiako ikerketa amaitu ondoren: *“indar demografiko txikiko komunitate bat zegoela dirudi, baliabide ekonomiko urrikoa eta kristau akulturizazioan zegoena”*<sup>2</sup>.

Edonola ere, Elorrioko nekropoli eta tenpluen alorrean Bizkaiko beste edozein herritan baino aurkikuntza gehiago eta kalitate handiagokoak egin dituzte. Eta aurkikuntza horiek oso mesedegarriak izan dira Goi Erdi Aroko garai iluna argitzeko. Ondorioz, nahikoa froga dago gauza batzuk ziurtasunez esateko: inguru-

2 A. Azkarate, *Arkeoikuska* '87. 1988.



ko jendea gune txikietan elkartuta bizi zela, mendien erdi inguruko hegaletan, elkarrengandik nahikoa gertu eta erlijio-erakin baten inguruan. Gune horietako etxeak material xumez eta galkorrez egindakoak ziren (egurrez esaterako). Tenpluak ere ez ziren garrantzia handikoak; alegia, ez ziren gainerako eraikinak baino askoz nabarmenagoak. Aipagarria da gune horietan guztietan jendeak bertan bizitzen jarraitu duela gaur egun arte. Memai, ospelean egonik, salbuespena izan da.<sup>3</sup>

## Monasterio “berria... ala zaharra”?

1053ko otsailean, Munio Sanchez jaunak eta Legunzia emazteak (Durangoko Lurraldeko kondeek) San Agustín Etxabarriko eliza sortu zuten. Sorrera-eskirituran *“...monasterio berria...”*<sup>4</sup> esaten zaio. Hori dela eta, ikerlari batek baino gehiagok pentsatu izan du toki horretan beste tenplu bat egon zela lehenagotik, eta antzinakoa zurezkoa izango zela agian. Baina ez dago hori ziurtatzerik. Dena dela, Dona Gil-en iritziz, azalpen hori okerra izan daiteke. Kontua da garai hartako agirietan ohikoa izaten zela hori esatea planta “berriko” eraikin bat egiten zuten bakoitzean, lehenengotik eraikina izan nahiz ez izan<sup>5</sup>.

Aldez aurretik jendea bizi zenik ere ezin da ziurtatu. Hori ziurtatzerik balego, aurretik tenplua egon zela dioen teoriak indarra hartuko luke. Hala ere, San Agustinen sorrerarekin beheko bizilekuak garatu eta sustatu nahi zituztela argi antzean dago, betiko herrixka garaian kaltetan.

3 D. Gil Abad, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (39. or.).

4 B.F.A. Elorrioko Udala Artxiboa. 340/4219.

5 D. Gil Abad, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (37. or.).



Hasieran esan dugun bezala, XI. mendearen erdi aldera eliza prerromaniko bat eraikitzen hasi ziren. Eliza haren jabetza laikoa zen<sup>6</sup>, eta ez monjeena. Elizak

6 Eraiki ondoren erregea jabetu zen harekin. Erregeak berak erabakitzen zuen jabetza noren eskuetan utzi, zerbait ordaintzeko nahiz eskertzeko. Gauzak horrela, XIV. mendearen amaieran Juan Martinez Iburguen zen nagusia; XV. mendean, ordea, ibarratarrek izan ziren hango ugazabak. Kontuan hartu behar da San Agustin, espiriturako tokiia izateaz gain, produkzio-gune oso garrantzitsua ere bazela. Diru-sarrera handiak zeuzkan, "hamarrena" zeritzon zergari esker batez ere.



📍 Santa Anako komentua

parrokia eginkizuna hartu zuen (kalonje batzuk bizi ziren bertan), eta ermita ugari zituen bere menpean. Eraikin haren ordez eliza erromanikoa egin zuten XII. mendean, eta XVI. mendearen hasieran gaur eguneko eliza gotikoari eman zioten hasiera. Elizarekin batera San Martin eta Santa Marina kapera funerarioa egin zuten kanpoaldean. Tradizioaren arabera, kapera horretan jarri zituzten gerora kondeen momiak.

XVII. mendean, zenbait lanen ondorioz, tenpluaren itxura asko aldatu zen. 1607an absidea egin zioten, 1661n kanpoko elizpea eta 1666an sakristia. XVIII. mendean eliza eraberritzen jarraitu zuten. Gaur eguneko korua eta kanpandorrea ordukoak dira. Jatorrizko egurrezko koruaren ordez egin zuten koru berriak egitura barrokoa



eta arku handia dauka. Kanpandorre ederra eta “zaila”<sup>7</sup> Javier Arizabaletak amaitu zuen 1742an.

Dena dela, elizako lanik bikainena erretaula nagusia<sup>8</sup> da. Horrekin batera, XVI. mendeko horma-irudiak edo barruko freskoak ere nabarmendu behar dira. Erretaula Errenazimendu garaikoa da, Plateresko estilokoa eta XVI. mendearen bigarren hereneko zehatzago esanda. Erretaula polikromatua maila artistiko handiko lana da. Aipagarriak dira lerdentasuna, armonia eta konposizioa oro har; eta irudien janzkeren espresioa, anatomia eta tolesdurak bereziki. Zoritxarrez, ez dakigu erretaula nork eta noiz egin zuen. Erretaularen buruan San Agustin gotzaina dago. Irudia gotikoa denez, erretaula bera baino zaharragoa dela esan daiteke.

Amaitzeko, XVI. mendearen bigarren zatiko komentua nahitaez aipatu behar da. Gaur egun barruan konponketa handiak egiteko premia du. Aipagarria da elizara goitik zuzen sartzeko pasabidea daukala.

7 1718tik aurrera, alegia tximistak kanpandorreak hondatu zuenetik aurrera, proiektu berriaren zimenduek arazo larriak eragiten zituzten. Hori zela eta, garai hartako euskal arkitekturek onenen premia izan zuten (Erdoiza, Lekuona, Abaria, Ibero, Lizardi, Zuaznabar eta Arizabaleta).

8 Jatorriz izan zen bezala ikusteko, kontserbazio- eta berriztapen-prozesua izan zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Zerbitzuaren Zaharberritze tailerraren eskutik. Proiektu hura E.R.C.O.A.k gauzatu zuen 1.995etik 1.997ra.



## Heziketak aberastasuna dakar

Elorrioko historian oso kontuan hartzeko moduko beste eraikin enblematiko bat Santa Anako moja domingotarren monasterioa izango litzateke. XVII. mendearen amaieran erromesen aterpea komentu egitea prozesu luze baten emaitza izan zen. Prozesuari 1671n eman zioten hasiera, Elorrioko merkatari ospetsu batzuen dirulaguntzen bidez. Helburua honako hau izan zen: Ermuko Santa Margaritako moja domingotarren komentua Elorrioko Santa Anaren etxera eta kaperara eramatea. Hori lortzeko asmoz batzorde bat eratu zuten. Frantzisko Estakasolo lizentziatuak (Errege Kontseiluko abokatua), Domingo Lekerikak, Tomas Urkizu Iturbek, Benito Urkizuk eta Diego Urkizuk osatutako batzordea izan zen. Batzordearen presidentea, berriz, Gregorio Otalora kapitaina (alkate eta epaile ere bazena). Gizon haiek guztiak oso ondo ezagutzen zituzten Sevilla, Indiak eta merkataritzaren arauak<sup>9</sup>. Herrian monasteriooooo bat eraikitzea komenigarria izango zela oso argi ikusten zuten, bai erlijioaren aldetik ("*servicio a Dios Nuestro Señor*"), bai kulturaren eta ekonomiaren aldetik ("*bien universal para la villa*")<sup>10</sup>. Izan ere, komentuarekin batera gramatika-ikastetxe bat martxan jartzea erabaki zuten (bi elizgizonen ardurapean), herriko gazteak hezteko eta aurrerantzean beste ikasketa batzuk egiteko aukera izan zezaten eta goi mailako lanak egin zituzten ("*pondrían en astillero de aspirar a mayores estudios y con ellos a puestos sublimados*")<sup>11</sup>. Helburuak epe ertainean eta luzean lortu nahi zituzten. Herritarrek XVIII. mendean bete-

tako funtzionario-karguak kontuan harturik (Indietan nahiz Espainiako hainbat tokitan), helburuak neurri handian lortu zituztela esan daiteke.

1691n, hogeitun urteren ondoren, monasterio berria eraikitzeko asmoz bildutako dirutza 70.033 errealekoa zen. Domingo Lekerikak gordetzen zuen diru hura. Aipatutako dataren aurretik eta ondoren dohaintza garrantzitsuak egin zirela ere badakigu: 1680an Maria Jazinta Arriolak -Martin Arespakotxagaren alargunak- 100 dukat eman zituen; 1692an Simon Zearsolok zilarrezko 1.500 ezku; urte hartan bertan, Diego Urkizuk 5.500 errealetan balioztatutako lursaila eman zuen. Edonola ere, Domingo Larizek egin zuen dohaintzarik garrantzitsuena. Bera izan zen komentuaren bultzatzailerik handiena. Kontuan hartu behar da, gainera, bere emaztea (Josefa Monasterioguren) Ermuko komunitateko prioraren eta beste hiru lekaimeren ahizpa ere bazela. Domingok, bizi zela, 30.500 erreale emateaz gain, komunitatea lekuz aldatzeko gastuei aurre egiteko beste 22.000 erreale ere eman zituen. Hilzorian zegoela, komentua eta koinata izan zituen gogoan. 1695ean, bere azken nahian adierazi zuenez, testamentuaren gastuak ordaindu ondoren geratuko zen aberastasuna -Sevillan zeukan azken konpainiak emandako irabaziak barne-komenturako izango zen (harginlanak egiteko, baratzari hesia egiteko, komentua apaintzeko eta abar). Komentuko eraikuntza-lanak 1699an amaitu eta mojak hurrengo urtean (1.700ean) joan omen ziren bertara bizitzera.

9 Klaustroa beti izan da deigarria. Bizkaiko arkitekturaren ezaugarriak daukan arren, Andaluziako patioen antza ere badu. Komentua nortzuek sortu zuten kontuan harturik eta Sevillarekin zuten lotura jakinik, berezitasun horren arrazoia argi geratzen da.

10 E. Rodríguez, *El monasterio de Santa Ana de Elorrio*. Bilbo, 1998. (40. or.).

11 E. Rodríguez, *El monasterio de Santa Ana de Elorrio*. Bilbo, 1998. (41. or.).

 Margoa, erretabloa eta indusketa arkeologikoa San Agustineko elizan







San Agustineko plano zaharra (XVIII. mendearen hasierakoa).

## Agindutakoa ez zuten bete

Elorrión komentuko bat eraikitzeko asmoa ez zen berria izan, gauza jakina zelako horrek onurak ekarriko zizkiola herriari. Hori jakinik, Maria Martínez Iturbek, Pedro Pérez Urkizuren alargunak, egindako promesa bitzita osoan (1609an hil arte) betetzeko ahaleginak egin zituela ematen du. 1.592an senarrak -Sevillan merkatari aritutako elorriar adoretuak- eta Mariak komentua eraikiko zutela agindu zuten testamentuan. Herrian, Santa Ana elizan zehatz esanda, moja-monasterio bat sortzeko konpromisoa hartu zuten. Garai hartan eliza hura erromesentzako aterpea eta ospitalea zen. Senar-emazteek 2.000 erre-

leko diru-laguntza emango zutela agindu zuten (*"en cierta tributación y angustia que Nuestro Señor Jesucristo fue servido de nos dar; prometimos de que daríamos la renta de dos mil reales para ayuda de las religiosas que entendimos habría en la iglesia de Santa Ana de esta villa"*)<sup>12</sup>. Mojak herrikoak eta jurisdikzioak nahiz San Agustín Etxebarrikoak izatea zen bikotearen asmoa.

Proiektu hura ez zen gauzatu. Porrotaren arrazoiak gar-

<sup>12</sup> B.F.A. Elorrioko Udal Artxiboa. 329/4150.



Plano berberaren detailea.

bi ez dakizkigun arren, proiektua hutsean geratu zen. Mariaren eta Pedroren hitzek ez digute argibide handirik ematen: *“la erección de dicho monasterio y el recibir de las dichas beatas no ha llevado efecto hasta ahora por algunos impedimentos que se han atravesado”*<sup>13</sup>. Kontuak kontu, garai hartan sortu zuten Durango moja Agustindarren Santa Susana monasterioa. Ziur gaude ez zela kasualitate hutsa izan, eta horrek izan zuela nolabaiteko zerikusia.

13 B.F.A. Elorriko Udal Artxiboa. 329/4150.

Senar-emazte elizkoi haiek herriaren inguruan ere zabaldu zuten kristautasuna agintean egon ziren garaian. 20 errealeko errenta ordaintzen zuten urtero, neska-mutilei zein nagusiei dotrina euskaraz irakasteko (*“Se pongan de renta cada año de nuestros bienes veinte reales... para que los haya y lleve un clérigo sacerdote con cargo que haya de enseñar en vascuence la doctrina cristiana a los niños y niñas y a las demás personas que quisieren ir a aprender”*)<sup>14</sup>.

14 B.F.A. Elorriko Udal Artxiboa. 329/4150.





## Eskutitza ezer ezean geratu zen

Berdina, edo antzeko zerbait, gertatu zitzaizen 1690. urtearen inguruan beste bi asmori: Jesuiten ikastetxea eta Karmeldar Oinutsen monasterioa sortzeko asmoei alegia. Proposamena berandutxo iritsiko zen beharbada; garai hartan Santa Anako domingotarren monasterioa martxan ez ezik, nahikoa aurreratuta ere bazegoen eta.

1690eko urriaren 3ko eskutitz batean, Juan Zearsolo merkataria honako hau adierazi zion Elorrioko herriari: aspaldiko lagun batek 30.000 peso dauzka Elorrion Jesuiten ikastetxea sortzen laguntzeko (*"un amigo de esas partes ha muchos años que trabaja en este Reino con deseo de que se funde en la villa de Elorrio un colegio de la compañía de JJS para lo que tiene dispuestos treinta mil pesos"*)<sup>1</sup>. Zearsolok ikastetxea eraikitzeko lekua ere proposatu zuen: San Rokeko zelaia, Karmeldar Oinutsen monasterioaren ondoan. Horrez gain, diru kontuak ere zehaztu zituen: 200 peso Karmeldar Oinutsenmonasteriorako eta 300 peso Jesuiten ikastetxerako (*"Se puede disponer la fundación de modo que no tengan mas sitio que por el colegio y una huerta que en el que esta detrás de la iglesia en la Campilla de San Roque estuviera buena y mas si le acompaña por colateral un monasterio de monjas carmelitas descalzas de la Institución de Santa Teresa y por su fundación promete 200 pesos que también los tiene dispuestos y teniendo lugar lo uno, y lo otro irán con los 300 pesos que son para la fundación del colegio. La voluntad de esta persona ha sido dar la porción de estos 500 pesos por estas dos fundaciones"*)<sup>2</sup>. Eta emozio "interesatu" horrekin, Jesusen Konpainiako probintziako arduradunari kopuruaren be-



rrri ematea aipatu zuen (*"dar parte al provincial de la Compañía dándole razón de la cantidad que se ofrece para esta obra"*)<sup>3</sup>.

Sorrerak onartzeko Juanek honako arrazoi hauek azaldu zituen: Jesuiten ikastetxea herritarrak, eta batez ere baserritar behartsuak, kristautasunean hezteko eta txiroei laguntzeko oso baliagarria izango zela (gogoratu Konpainiak ez zuela limosnarik eskatzen); bestalde, Karmeldarren komentua oso garrantzitsua izango zela herriko neskak bertara bideratzeko.

Aipatu dugunez, eskutitz bidez egindako proposamen hura ezer ezean geratu zen, asmo hutsean.

3 L.A. Katalogo-zenbakia: 317-18.

1 Loiolako Artxiboa. (Azpeitia; L.A. aurrerantzean). Katalogo-zenbakia: 317-18.

2 L.A. Katalogo-zenbakia: 317-18.